

Gatzizena, ezizena, goitizena, motia...

ermuarrak ezagutzeko beste modu bat

Kontatzen dabenez, don León Txikixa Ermuan abade zala ume bat bataiatzera ekarri otsen eta izenaren gainian besuetako eta etxeko ados ipiñiko zitxuanik ez zeuala ikusitxa, euren arteko danak entzun ostian zera bota eiñ ei eban: "hará, alper-alperrik zabizie, kalera urtetzen daben momentuan ipiñiko dotsie eta ezizenen bat." Eta halantxek izan be; ermuarrak beti prest ez danetik deitzeko bateron bati.

Nahiz eta gatzizen asko ondiñok herritarren ahotan ibilli, gehixengua Ermua txikitxuaa zan sasoikuak dia. Azken 30-40 urtiotan itzelezko gorakadia bizi izan dau herrixak eta ezizen barrixak sortu arren be, aurretik ipiñitxakuei eustia nahikua izan da.

Tituluaren atzian -NEKUA atzizkixa ipintzen zan senitar-tekua, enea, famelixia aditzera emoteko. Euskal abizen askoren sustraixa jatorrizko basarrixaren izena jasotzen daben moduan, gatzizen asko horretan oinarritzen dia *Patxi Urko*, *Juan Betiondo* edo *Patxi Asuntzakin* ikusi leiken modura. Baiña gatzizenak dakan indarraren erakustailerik onena da basarri askok galduta dakarrela eskriturau ziraneke izena eta herritxarrak ipiñitxakua dala zabalduena: *Sinko* basarrixan Sabon jaixo zan, *Motxu* Lasalde, *Infreñu* Plazaguena, *Patakonia* Urbitarte, *Txantxiku* Pepetxiki eta *Orozko* Bustintza-Urko.

Gatzizenak gurasuetatik semietara pasatzeko besteko indarra daka eta ez da bere titullarrakin batera hiltzen; *Pedro Maria*, *Liburio*, *Kasto Otxua*, *Pelaio*, *Bitor Otxua*, *Anton Atxa* edo *Pedro Atxaren* seme eta lobak aitzitxaren izenari gaur egunerarte eusten jakin dabe. Andrazko gitxik daka ezizena ipintzeko orduan itxurri izatiaren ohoria, baiña ezin esan egon ez dagozenik: *Angulerianekua*, *Eskolanekua* (ama Eskolastika eben) edo *Anbrosianekua*, esate baterako. Oiñ badaoz baitxa euren izena galdu eta gizonarena feminizauta ezagutu dianak: *Txotxiñesia*, *Adolfosia*, *Krispiñesia*, *Zangitusia*, *Txotxolosia*, *Pajarosia*... *Txotxin*, *Adolfo*, *Krispin*, *Zangitu*, *Txotxolo* eta *Pajaron* emaztiak. Honen aldran beste txori asko ibillitxakua dia honek parajiotan: *Zozua*, *Kukua*,

Txitxia, *Txotxin*, *Gallo Zaharra*, *Txorixa*. Beste animaliren bat gogora ekartzen dabezenak be franko: *Xagua*, *Txindurri*, *Zekorra*, *Txarri*, *Ardinarrukua*, *Txirtxilla*, *Asto*.

Edozerk balixo dau

Norberaren lanbidiak be asko errazten eban ezizena ipiñi bihar hori: *Barberua*, *Organistia*, *Kajerua*, *Errementarixa*, *Anguleria*, *Erromadetakua*, *Foteria*, *Igeltsetserua*, *Alanbrerua*, *Tanbolinterua*, *Bakillautxosia*, *Karteruanekua* edo *Aiñianekua*. Gorputzaren edozein ezaugarrik balixo dabela erakusteko hona hemen andana bat: *Txikixa*, *Txato*, *Surdo*, *Bigotes*, *Largo*, *Hankamotza*, *Mokoz*, *Kakaumia*, *Tripón* eta *Haundi*. Bai jaioterrixak zein biharra edo soldautzia eiñdako lekuak joko haundixa emoten eban: *Andoain txikixa*, *Berriz*



Ermuarrak beti izan dia gatzizenzaliak.

txikixa, *Txina*, *Rifeñua*, *Txangai*, *Ermu*, *Mondra*, *Durango*, *Patakonia*, *Zumai*. Modan euazen ziklisten jarraitzailliei haretxen izena ipintzia baiño gauza praktikuagorik, ezin; *Loroño*, *Ferelion* eta *Botetxiak* makiñatxo karrera eiñdakuak dia Ermuko kalietan zihar.

Xelebrienak

Baiña ezer aitzagarrik badago da ezizena ipintzeko orduan edozerk balixo dabela eta anekdota edo motiburik ximplena izan leikela urtietarako eta sarritxan belaunaldiatarako balixua eukiko daben gatzizen baten oinarrixa: *Peixotak* ekarri eban Ermura lehenengo Peugeot bizikletia; *Txispas* bi bata geldirik egon eziñeko prentzia, txinpartia baiño bizixaua, bestia elektrizistia; *Kakaieñerua*, behinobehin kaka pillo historikua eiñ eta gitxi jaten zan sasoi haretarako akorduan hartzeko moduko gauzia itxuria; *Dariola*, honek be batek daki zer jan eban; *Kandelero*, mutikotan ez eban Kleeneexik eza-gutu kontizu.

Mediko txikito, medikuaren semia aitzandik desberdintzeko; *Gordo*, *Txiki* eta *Txato* alkarren arteko antza gitxiko hiru anai; *Serbus*, aurpegi baltza ekala eta orduko zapata lustre baten izena egokitxu dotsien; *Trunboia*, zaratsua eta kitxo; *Azurrek*, hazurra besterik ez; *Txo*, ondarrutarra; *Moski*, itziartarra eta sarrixegi esan noski!; beti hillelata eta kejaka ibiltzen zan baten ondorenguei *Kejanuanekua* lege ezagutuko zian; *Rapiduanekua* eta *Polborianekua* gauza bat amankomuna: dida baten eitxailliak, juan orduko etorritxa; *Sangre Vasca*, abertzalia zan eta esateko eukitzen eban euzko odola ekala. Ahor ba, gerora hainbeste esames ekarri ditxuan *Rharen* zabaltzaillietakua ermuarra; *Españita* be haren inguruan; *Jaungoikua*, bat eta bera nahikua; *Motxaillia*, sekula bez etxekalte; nononoz zeozarren gaiñeko ezjakintasuna erakutsi ebana betiko geratu zan *Etxaizat*; *Etxuan* be ezetzari pega-pega eiñda antza; behinobehin "¡hola, paisano! esan eta *Paixan* moduan ezagutu genduna be bazan...

Ene, zenbat eta zenbat. Nork esango zoskun hainbeste topauko genduzanik, nahiz eta banaka batzuk jaso barik egon. Zerrenda hau osatziak geure denporatxua jan dosku, baiña gustoko lana erdilan. Seguruatik izango da batzuendako gogoragarri, beste askorendako barregarri, gu bixontzako disfrutagarri eta espero dogu ez izatia iñorendako mingarri.

Joseba Idigoras eta Estibalitz González

Ezizenen zerrenda honetan seguru egon falta dirala batzuk; oin, sobran? inobez! Dagozanak izan eta dia. Hamen azaltzen ez dan gatzizenen bat etorri bajatzu akordura, deitxiguzu 943-179350 telefonora. Estimau hartuko zaitxugu.

Abeletxe, Aingerutxua, Aiñianekua, Alanbrerua, Aldapakua, Alopo, Anbrosianekua, Andoain txikixa, Angelanekua, Angulerianekua, Antoliñenekua, Antonatxanekua, Ardan, Ardinarrukua, Ariñonekua, Arrakonekua, Artamendikua, Artixanekua, Artxiel, Asto, Asuntza, Asur Atxipito, Bakillautxosia, Balabanekua, Balerio, Barberua, Bekerrota, Beñatxo, Berriz txikixanekua, Betiondo, Bigotes, Bitorotxuanekua, Botetxia, Caceres, Chevalier, Dariola, Denda barrikua, Droget, Durango, El americano de Ermua, Ermu, Errementarixa, Erromadetakua, Errotabarrikua, Eskolanekua, Españita, Etxaizat, Etxegiña, Etxuan, Ezkerranekua, Fati, Ferelion, Filandesa, Foterianekua, Fumantxu, Gallo zaharra, Gordo, Hankamotxanekua, Haundi, Herreronekua, Igeltserua, Inbirri, Infreñenekua, Isuanekua, Itxurbe, Itxurri Jaungoikua, Joxe Bentanekua, Joxepanas, Kajeruanekua, Kakaieñerua, Kakaumia, Kaki, Kakizio, Kalekua, Kantabria, Kapela katxuanekua, Karabixa, Karteruanekua, Kaskillu, Kastañaburu, Kastellanua, Kastotxuanekua, Katalana, Katua, Kaxiano, Kirru, Kokosenekua, Komentukua, Krispiñesia, Kristonekua, Kukua, La rubia, Largo, Larrosario, Larrosia, Larrosianekua, Leontxikixanekua, Liburionekua, Lokilandia, Lomiñokua, Lomiñonekua, Loroño, Mac Arthur, Mahatsa, Malengonekua, Mantianekua, Mari haundi, Maria Torretanekua, Markiña haundixa, Matxintxikiñekua, Matxiñenekua, Mediko txikito, Mendiolanekua, Merkurio, Metxerosenekua, Mielitua, Mokoz, Molon, Mondra, Montenekua, Moski, Motxaillia, Motxoianekua, Motxunekua, Onnassis, Organistia, Orozkonekua, Ostatukua, Oison, Paixan, Pajaro, Pajarosia, Palazio zaharrekoa, Palaziokua, Patakonianekua, Pedratxanekua, Pedromarianekua, Peixota, Pelaionekua, Perrillia, Piliña, Pirulia, Plazako dendakua, Polanekua, Polborianekua, Portalenekua, Potu, Potxo, Purgatorixokua, Querido, Rapiduanekua, San Antonio, Sangre vasca, Sanpellua, Santimaria, Santukua, Sapatilla, Sargento baltza, Sargentua, Segundaneakua, Serbus, Sinkonekua, Sopas, Surdo, Susin Takala, Tanbolinterua, Tarrankan, Titiñonekua, Tokio, Torkito, Torreta, Torteruanekua, Totuanekua, Trakenekua, Tripon, Trunboia, Txabal, Txalekonekua, Txangai, Txanit, Txantxikua, Txarri, Txato, Txeru Txiki, Txikilin, Txikixa Txina, Txindurrinekua, Txingao, Txingoia, Txipu, Txirikilla, Txiron, Txirtxilla, Txispas, Txisto, Txitxianekua, Txo, Txokolates, Txomiñenekua, Txorixa, Txortillo, Txosia Txotxiñenekua, Txotxiñesia, Txotxo flit Txotxolosia Txutxurupinekua, Urko, Urzuleta, Virgilio, Xaguanekua, Zangitusia, Zekor, Zerukua, Zienfuegos, Zozuanekua, Zumai.

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

San Pelayo 6-A (Eroski gainean)
46 P.K. - Ermua

ESTANCO
SOLOZABAL

Torrekoa z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tlf. (943) 17 07 33

AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ
KONJELATIBUAK

Ermuko Merkata, 54
eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkata
943 77 05 98

ESKOLAKO MATERIALEA.....

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA.....

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Pelayo 8C, beheo
48260 Ermua
943 17 47 44